

## **BAKARDADEAREN IRRI GALDUA**

Odei Arregi  
*Azkoitia, 16 urte*

Bakardadeak,  
begiak zulatzen zizkinan.  
Arrats euritsu hartan,  
karrika hutsak  
hitunan pentsamentuetan.  
Hire bihotz bakartia,  
malkoz betetzen  
somatu hunan,  
baina laguntza eskatzeko  
beldur hitunan  
hire ahots korda erdoilduak,  
Eta haizeak barkamena eskatzen zinan  
egin gabeko minagatik  
eta hik,  
begiak isten hizkionan,  
ulertaraziz  
bakardadea hunala  
arerio,  
eta haizeak lagun egiten zinan  
bakardadea uxatuz.  
Haizea hitaz maitemindurik  
eta hi,  
bihotza saldurik  
maitasuna gehiago  
sentitu ezinik,  
negar egiten hunan.

egindako hutsak  
konpondu ezin hitunalako  
baina haizea alboan hunan  
malkoak xukatzeke  
eta kilimak egiteko.  
Hire barrearen bila  
zebilenan haizea  
eta aurkitu zinan  
bai, aurkitu,  
malko artean uger eginez  
irribarre galdua  
malko gaziz bustia,  
zentzu guztia  
ezerezean galdu zuen  
irria,  
baina hirea hunan  
alaitasun arraro hura  
eta haizeak maite zinan  
bihotzez maite ere  
naiz, hik sentitu  
gabeko alaitasunaren  
irri faltsu izan  
eta urrezko kaxa batean  
gorde zinan  
gehiago ihes egin  
ez zezan  
eta irria gatibu  
haizea pozik hunan  
hire poza eskuan  
bai zinan.  
Baina ez hunan ohartzen

gatibu den irria  
samin bihurtzen dela  
eta malko artean usteldurik  
desagertu ohi dela,  
eta azken irria  
desagertzearekin bat  
hi ere desagertuko  
hintzela  
eta haizea pozik hunan  
ezjakintasunari esker  
pozik,  
alaitasuna betiko  
bera zelakoan,  
jakin gabe  
jada bera ere  
bakarrik zegoela  
eta bere irria  
egunen batean  
malko artean itorik  
aurkituko zuela.